



Haurreskolak Partzuergoan egoerak eztanda egin du!!

Joan den astean **STEILAS** sindikatuak prentsa ohar baten bitartez, zera salatu zuen:

"Azken egunetan, Hezkuntza Sailburua eta Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria den Jokin Bildarratzek, hedabideetan maiz esan du eskoletan izurritearen ondorioz sortutako ordezkapenak betetzen ari direla, baina hau ez da horrela. Haurreskolak Partzuergoan ezta ere, ez dira ordezkapenak betetzen ari."

Badakigu, joan den asterarte, enpresa, haurreskolak zabalik mantentzeko helburuarekin hezitzaileak aparteko orduak egitera behartzen ari zela. Ustez, lanerako prest dauden hautagaiak aurkitzen ez dituelako. Egoera hau ez da berria, beste momentu askotan ere trikimailu hori erabiliz lortu izan du enpresak egoerari aurre egitea. Nahiz eta **STEILAS** sindikatuak askotan salatu izan duen kudeaketa langileen baliabide falta, Haurreskolak Partzuergoko gerente ezberdinek ez dute inoiz gai hau seriotasunez hartu.

Gauzak horrela, egoerak eztanda egin du. Aste honetan pertsonal departamentutik lanerako prest dauden hautagaiak topatzen ez dituztela baieztatu digute. Pertsona bat aurkitzeko egin behar duten dei kopurua zenbatezina dela diote. Kudeaketa langileak gainezka daude. Jakin badakite, egunero haien lana egin gabe uzten ari direla, eta horrek haiengan ezinegona sortzen du. Gabezi hauek arazo estrukturalak bihurtu dira, eta orain haurreskolen egoera oso tamalgarria da.

Egoera hain da kaskarra, non, aste honetan, egun bat baino gehiagotan; adibidez, haurreskola batean, 28 hurrekin bi hezitzaile eta erdi egotera heldu direla. Nola da hau posible? Nork bermatuko du haur horien segurtasuna? Non gelditu dira osasun protokoloak? Nork bermatu behar ditu langileen lan baldintzak? Eta eskubideak?

Muturreko egoera batean gaude, Haurreskolak Partzuergoan inoiz eman ez den egoera larri baten aurrean. Horregatik, Haurreskolak Partzuergoko gerenteari ausardiaz eta arduraz jokatzeko eskatzen diogu. Muturreko egoeretan muturreko erabakiak hartzeko gai izan beharko luke. Adibidez; haurreskolen beharrak hezitzaileekin ornitu ahal izateko salbuespeneko deialdi edo aplikatibo berezi bat egin beharko luke; ordezkoen zerrendan lan eskaintza onartzeko prest dauden hautagaiek izena eman ahal izateko, aukera eman hautagaiek borondatez alde baterako bajan jartzeko...

STEILAS sindikatuak, Haurreskolak Partzuergoan ordezkapenak lehen egunetik betetzea, eta kudeaketa langileek behar dituzten baliabide teknikoak eguneratzea exijitzen du. Langileak pairatzen ari diren lan kargekin amaitzeko eta familiek zein hurrek merezi duten zerbitzua bermatu ahal izateko.

STEILASen langileen lan baldintzen defentsan jarraituko dugu, eutsi gogor!!!

2022-01-27



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus